

# Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2019

EUSKADIREN BILAKAERA  
ETA EGOERA

2019ko uztaila

**innobasque**

berrikuntzaren  
euskal agentzia

agencia vasca  
de la innovación

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

## Laburpena

- Regional Innovation Scoreboard 2019k (RIS2019) agerian utzi du Euskadik berrikuntzan duen errendimendua hobetu egin dela azken 8 urteotan.
- Dena den, hobekuntza hori Europakoa baino txikiagoa izan da; izan ere, EB-28koarekin alderatuta, % 79,8koa izan da eta, aldiz, 2017koa % 91,4koa izan zen.
- Bilakaera hori I+G arloko gastuarekin bat dator. Krisiak eragin du hori eta horren eragina askoz ere handiagoa izan da Euskadin Europan baino.
- Eragin hori handiagoa izan da enpresetan, eta Europarekiko aldea handitu egin da.
- Horregatik guztiagatik, Euskadi berrikuntza altuko eskualdeen taldean egotetik, berrikuntza neurritsua duten eskualdeen taldera igaro da, baina Estatuko gainerako eskualdeekin alderatuta, bere posizioari eutsi dio.
- EB-28rekin alderatuta, hobetzeko tarte handiena enpresa txikien berrikuntzan dago.
- Innobasquek identifikatu zituen ahulezia horiek 2018ko Innobasque Berrikuntzaren Txostenean.
- Hori dela eta, 2018an gure Plan Estrategikoa berrikusi eta 2020. Urterako helburu gisa erakunde berritzaileen kopurua handitzea ezarri genuen, arreta bereziki ETE-etan jarrita.
- Testuinguru horretan baitan, ekimen berriak ari gara garatzen eta, horien artean, nabarmendu beharrekoa da Hazinnova, uztailaren 12an aurkeztuko duguna.

Regional Innovation Scoreboard 2019 (RIS2019) lanak agerian uzten du Euskadiren berrikuntza arloko errendimendua hobetu egin dela azken 8 urteotan.

### Euskadik RIS 2019 adierazlean (EB-28 2011n = 100) izan duen bilakaera




Iturria: CE. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2019.

— Euskadi


Zehatzago esanda, Euskadi 132. Posizioan dago Europako 238 eskualdeen artean; hau da, EB-28 kontuan hartuta, % 79,8an.

### Euskadiren posizionamendua RIS 2019 adierazlean



- Eskualde liderrak
- Berrikuntza handiko eskualdeak
- Berrikuntza neurritsuko eskualdeak
- Berrikuntza apaleko eskualdeak

Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2019.




Berrikuntza maila RIS 2019ren arabera




Dena den, hobekuntza hori EB-28koa baino txikiagoa izan da; izan ere, EB-28koarekin alderatuta, % 79,8koa izan da eta, aldiz, 2017koa % 91,4koa izan zen.

### Euskadiren posizionamenduaren bilakaera RIS adierazlean (2009 -2019)



Bilakaera hori I+G arloko gastuarekin bat dator. Krisiak eragin du hori eta horren eragina askoz ere handiagoa izan da Euskadin European baino.

### I+G arloko barneko gastua BPG<sub>p/m</sub>-arekiko eta BPG<sub>p/m</sub>-aren urtetik urterako hazkundera Euskadin eta EB-28n (% · 2005-2019<sup>1</sup>)




(1) I+G arloko barne-gastuaren inguruko 2018ko eta 2019ko datuak, Innobasquek zenbatetsita, eta BPGaren 2018ko eta 2019ko datuak, Ogasun eta Ekonomia Sailak zenbatetsita (2018ko abendua).

Iturria: Geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta. I+G arloko estatistika; Eustat. Kontu Ekonomikoak; Ogasun eta Ekonomia Saila (2018ko abendua); Eurostat. Statistics on R&D.

Hala dago islatuta I+Daren gastuaren bilakaeran datu absolutuak aintzat hartzen baditugu

### I+Gko barne-gastua, Euskadin eta EB-28n (M€ korrontek; 2005-2019<sup>1</sup>)




(1) 2018ko eta 2019ko I+G arloko barne-gastuaren datuak, Innobasquek zenbatetsiak.

Iturria: Geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta. I+G arloko estatistika; Eurostat. Statistics on R&D.

Krisiaren eragina handiagoa izan da enpresetan, eta Europako batezbestekoarekiko aldea handitu egin da.

### Enpresako I+Gan egindako gastua BPGp/m-arekiko Euskadin<sup>1</sup> eta EB-28n (%; 2005-2017)




(1) Enpresa arloko I+G unitateen arabera gauzaturako I+G arloko barne-gastua dago jasota. Ez daude barne teknologia-zentroak eta ikerketa kooperatiboko zentroak (CICak).


Iturria: Eustat. Ikerketa- eta garapen-estatistika; Eustat. Kontu ekonomikoak; Eurostat. Statistics on R&D.

Horregatik, Euskadi “berrikuntza handiko eskualdeen” taldean egotetik, “berrikuntza neurritsuko eskualdeen” taldera igaro da eta, zehatzago esanda, goiko azpitaldera (neurritsua +)

#### Euskadiren posizionamendua RIS 2017 adierazlean



#### Euskadiren posizionamendua RIS 2019 adierazlean



- Eskualde liderrak
- Berrikuntza handiko eskualdeak
- Berrikuntza neurritsuko eskualdeak
- Berrikuntza apaleko eskualdeak

Iturria: Europako Batzardea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2017 eta 2019.

Hala ere, oraindik ere berrikuntza maila handiena duen autonomia-erkidegoa da.

### Euskadik RISen duen posizioa<sup>1</sup> gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta (2017 eta 2019)

RIS 2017				
Posizioa	Autonomia-erkidegoa	EB-28ri buruzko oharra	Europako eskualdeekiko posizioa <sup>1</sup>	Berrikuntza maila
<b>1</b>	<b>Euskadi</b>	<b>91,4</b>	<b>110</b>	<b>Handia -</b>
2	Katalunia	88,5	114	Neurritsua +
3	Madrilgo Komunitatea	85,9	119	Neurritsua +
4	Nafarroako Foru Komunitatea	85,5	120	Neurritsua +
5	Aragoi	78,0	130	Neurritsua +
6	Valentziako Komunitatea	76,5	132	Neurritsua +
7	Errioxa	75,3	134	Neurritsua +
8	Kantabria	71,9	140	Neurritsua +
9	Galizia	71,6	142	Neurritsua
10	Asturias Printzerria	66,7	150	Neurritsua
11	Gaztela eta Leon	66,6	151	Neurritsua
12	Murtzia eskualdea	66,2	153	Neurritsua
13	Andaluzia	65,1	157	Neurritsua
14	Gaztela-Mantxa	59,8	167	Neurritsua
15	Illes Balears	59,0	169	Neurritsua
16	Extremadura	55,3	180	Neurritsua -
17	Kanariak	47,9	200	Txikia +
N/A	Ceuta Hiri Autonomoa	N/D	N/A	N/A
N/A	Melilla Hiri Autonomoa	N/D	N/A	N/A


RIS 2019				
Posizioa	Autonomia-erkidegoa	EB-28ri buruzko oharra	Europako eskualdeekiko posizioa <sup>1</sup>	Berrikuntza maila
<b>1</b>	<b>Euskadi</b>	<b>79,8</b>	<b>132</b>	<b>Neurritsua +</b>
2	Katalunia	77,6	140	Neurritsua +
3	Nafarroako Foru Komunitatea	75,5	145	Neurritsua
4	Madrilgo Komunitatea	74,0	149	Neurritsua
5	Valentziako Komunitatea	69,3	157	Neurritsua
6	Errioxa	67,5	161	Neurritsua
7	Galizia	66,1	162	Neurritsua
8	Aragoi	64,7	166	Neurritsua
9	Kantabria	60,2	173	Neurritsua
10	Murtzia eskualdea	59,0	176	Neurritsua
11	Asturias Printzerria	58,4	178	Neurritsua -
12	Kanariak	54,6	191	Neurritsua -
13	Illes Balears	52,3	197	Neurritsua -
14	Gaztela eta Leon	51,6	201	Neurritsua -
15	Andaluzia	51,0	205	Neurritsua -
16	Gaztela-Mantxa	44,7	217	Txikia +
17	Extremadura	43,4	218	Txikia +
18	Melilla Hiri Autonomoa	38,9	223	Txikia
19	Ceuta Hiri Autonomoa	26,0	234	Txikia -

(1) RIS 2017an, eskualde kopurua 220koa zen, eta RIS 2019an, aldiz, 238koa lurralde mailako banaketa eta eskuragarri dagoen informazioa handiagoak direlako.

Iturria: CE. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2017 eta 2019: Datu-basea.

Euskadiren kasuan, gazteen hezkuntza maila eta produktu berrien salmentarekin eta teknologia eta ezagutza arloetako sektore intentsiboetako enpleguarekin lotutako inpaktu-adierazleen mailak altuak dira, baina ahula ETE-en berrikuntzari dagokionez.

### Euskadiren posizioa Europako eskualdeen arabera RIS 2019ko adierazlea aintzat hartuta



(1) teknologia-zentroak eta ikerketa kooperatiboko zentroak enpresen artean jaso ditugu pribatuak direlako; Europako kasuan, aldiz, administrazio publikoen sektorekoak izaten dira.

(2) Intentsitate teknologiko ertain-altuko/altuko manufaktura sektoreak: aeronautika, elektronika, industria kimikoa (farmakologikoa barne), automobilgintza, trenak, makinak eta ekipamendu-ondasunak (ekipamendu elektrikoko ondasunak, makina-erreminta eta abar). SIC izenekoak ezagutzaren arloko zerbitzu intentsiboak dira: garraioa, zerbitzu profesionalak, IKTak, I+G eta abar.


Iturria: CE. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2017 eta 2019: Datu-basea.




EB-28rekin alderatuta, hobetzeko tarte handiena enpresa txikien berrikuntzan dago.

**Enpresa berritzaileen<sup>1</sup> ehunekoa Euskadin<sup>2</sup> eta EB-28n<sup>2</sup> neurria eta berrikuntza mota<sup>3</sup> kontuan hartuta (%; 2014-2016)**


**TXIKIAK**  
(10-49 lanpostu)



**ERTAINAK**  
(50-249 lanpostu)



**HANDIAK**  
(250 ≤ lanpostu)



(1) Funtsezko sektoreetan 10 enplegu edo gehiago dituzten enpresak.

(2) Euskadin, neurketa-unitatea enpresa-establezimendua da; aldiz, EB-28n, enpresa da.

(3) Enpresa berritzaileen eta berritzaile teknologikoen ehunekoa berrikuntza teknologikoak abian dituzten edo porrito egin duten enpresak ere jasotzen ditu (EIN).

Iturria: Eustat. Berrikuntzako Inkesta; Eurostat. Community Innovation Survey (CIS) inkesta 2016.

Adierazle horiek azken urteetan izan duten bilakaerak ere hori bera baieztatu du.

### Euskadiren bilakaera RIS adierazleren arabera (2012-2018)<sup>1</sup>

RIS 2017  
RIS 2019

RIS adierazlea <sup>1</sup>	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	Bilakaera	Iturria
Hirugarren mailako hezkuntza duten gazteak	60,8	61,3	58,5	54,2	56,9	55,1	57,1	↑	Eurostat
Bizitza osoko ikaskuntza	13,9	13,6	11,9	12,9	11,7	13,2	12,7	↑	Eurostat
Sektore publikoak (unibertsitateak eta gobernua) egindako I+G arloko gastua	0,54	0,53	0,51	0,49	0,47	N/D	N/D	↓	Eurostat
Enpresek egindako I+G arloko gastua	1,70	1,59	1,53	1,41	1,42	N/D	N/D	↓	Eurostat
ETE-ek berrikuntza teknologikoan (I+G arlokoa EZ dena) egindako gastua	0,20	0,23	0,22	0,22	0,27	N/D	N/D	↑	Eurostat (CIS) <sup>2</sup>
Produktu eta prozesuan berritzaileak diren ETEak	25,32	25,28	24,73	27,10	24,56	N/D	N/D	↓	Eurostat (CIS) <sup>2</sup>
Marketinean edo antolaketan berritzaileak diren ETEak	25,48	22,75	25,03	24,32	26,96	N/D	N/D	↑	Eurostat (CIS) <sup>2</sup>
Barne-gaitasunekin berritzen duten ETEak	20,31	19,72	21,97	22,77	21,94	N/D	N/D	↓	Eurostat (CIS) <sup>2</sup>
Beste batzuekin elkarlanean ari diren ETE berritzaileak	12,96	12,93	14,19	14,28	13,05	N/D	N/D	↓	Eurostat (CIS) <sup>2</sup>
Intentsitate teknologiko ertain-altuko/altuko sektoreetako eta ezagutza arloko zerbitzu intentsiboetako enplegua	45,2	45,9	44,6	45,6	44,8	45,8	46,4	↑	Eurostat
Produktu berrien salmenta (ETEak)	8,43	10,23	15,02	14,38	16,46	N/D	N/D	↑	Eurostat (CIS) <sup>2</sup>

(1) Ez dugu produkzio zientifikoko eta jabetza intelektualeko adierazleen inguruko informaziorik; izan ere, ad-hoc ustiapenetatik datoz.

(2) Informazio hori EIneren Berrikuntzaren Inkestatik jaso dugu.

Iturria: Eurostat. Labour market and lifelong learning; Eurostat. Statistics on R&D; Eurostat. Community Innovation Survey (CIS) inkesta 2016; Eurostat. High-tech statistics.

Horrez gain, gehitu beharrekoa da Estatuari lotutako faktore zuzentzailea dela eta Euskadik eragin negatiboa jaso duela.

### Euskadiko Regional Innovation Scoreboard-en kalkulua (2017 eta 2019)

DATUA	2017	2019
(A) Euskadiko batez besteko puntuazioa	0,449	0,459
(B) Espainiaren zuzenketa-faktorea	0,941	0,846
(C= A*B) Zuzendutako batez besteko puntuazioa	0,423	0,388
(D) EB-28ko batez besteko puntuazioa	0,463	0,486
(E=C/D*100) Euskadik EB-28rekin alderatuta duen posizioa, zuzenketa-faktorea kontuan hartuta	% 91,4	% 79,8
(E=C/D*100) Euskadik EB-28rekin alderatuta duen posizioa, zuzenketa-faktorea kontuan hartu gabe	% 97,0	% 94,4

Iturria: Geuk egina, Europako Batzordearen datuetan oinarrituta. Regional Innovation Scoreboard (RIS).

- Eskualde bakoitzeko batez besteko puntuazioari herrialde bakoitzari lotutako zuzenketa-faktorea aplikatzen zaio. Zuzenketa-faktore hori kalkulatzeko, EISen (25 adierazle) herrialdeak lortutako puntuazioa RISen lortutako puntuazioarekin (17 adierazle) zatitzen da.
- 1eko zuzenketa-faktorearekin, Euskadik % 94,4ko puntuazioa lortuko zukeen eta, horrenbestez, berrikuntza handiko eskualdeen taldean egongo zatekeen.

Oro har, zuzenketa-faktoreak eragin negatiboa izan du berrikuntza txikiagoko herrialdeei lotuta dauden eskualdeetan.

### EISen eta RISen kontuan hartutako Europako estatueta 2019ko zuzenketa-faktorea eta haien berrikuntza maila

Estatua	Zuzenketa-faktorea	Berrikuntza maila	Estatua	Zuzenketa-faktorea	Berrikuntza maila
Alemania	1,050	Handia	Irlanda	1,125	Handia
Austria	0,951	Handia	Italia	0,845	Neurritsua
Belgika	0,984	Handia	Lituania	0,890	Handia
Bulgaria	0,782	Txikia	Norvegia	1,017	Handia
Kroazia	0,773	Neurritsua	Herbehereak	1,038	Liderra
Danimarka	1,012	Liderra	Polonia	0,930	Neurritsua
Eslovakia	0,949	Neurritsua	Portugal	0,924	Neurritsua
Eslovenia	0,854	Neurritsua	Erresuma Batua	1,000	Handia
Espainia	0,846	Neurritsua	Txekiar Errep.	0,928	Neurritsua
Finlandia	1,017	Liderra	Errumania	0,910	Txikia
Frantzia	0,986	Handia	Serbia	0,927	Neurritsua
Grezia	0,846	Neurritsua	Suedia	1,032	Liderra
Hungaria	0,945	Neurritsua	Suitza	1,076	Liderra

Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2019: regional profiles.

Innobasquek identifikatu zituen ahulezia horiek 2018ko Innobasque Berrikuntzaren Txostenean.



### Ondorioak:

### Beste era bateko testuingurua; zer aldatu da?

1. Sistemaren eragingarritasun handiagoa. Produktu berrien salmentek eta maila teknologiko ertain-altuko sektoreetako esportazioek hazten jarraitu zuten inbertsioen bilakaera bestelakoa izan zen arren.
2. Enpresa ertainaren protagonismo handiagoa I+G arloan. Krisia dela eta, gutxitu egin da I+G arloan inbertitzen duten enpresa handien kopuru esanguratsu baten neurria.
3. Dena den, mantendu egin da berrikuntza arloan ETE-en ahulezia EBrekiko honako hauetan:
  - Berrikuntza antolaketan eta komertzializazioan edo marketinean.
  - Makinaria aurreratuan, softwarean, patenteetan eta abarretan egindako inbertsioak.
4. Enpresa arloko I+G arloko gastuaren arraila EB-28rekiko krisia dela eta. 2010. Urtetik, handitu egin da enpresa arloko I+G arloan egindako gastuaren aldea BPGarekiko.
5. Egonkortu egin da nazioarteko I+G publikoa. Azken hamarkadan izandako H2020ko Europako itzulkinen hazkundea, itxuraz, maila gorenera iritsi da.
6. I+G arloko langileen prestakuntza hobea eta emakumeen presentzia handiagoa. Handitu egin da ikerlarien zein doktoretzako titulua duten pertsonen ehunekoa.

Hori dela eta, 2018an gure Plan Estrategikoa berrikusi eta 2020. urterako helburu gisa erakunde berritzaileen kopurua handitzea ezarri genuen, arreta bereziki ETE-etan jarrita



**innobasque**

berrikuntzaren  
euskal agentzia

agencia vasca  
de la innovación

[www.innobasque.eus](http://www.innobasque.eus)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO